

# BEZEROAREKIKO HARREMANA

Gure bezeroei adieraziko diegu guretzako oso garrantzitsuzkoak izango direla gure enpresan. Gure bezeroak produktuak eskatu ahal izateko gurekin bildu beharko dira eta beren eskaria egin eta azaldu zer neurrikoak nahi dituzten eta zer diseinu mota nahi duten. Beraiek produktua aukeratu dute eta guk beraiek eskatutakoa ekoiztuko dugu. Behin produktua beren instalazioetara ailegatuta eta montatuta probatu ondoren beraien iritzia eskatuko genieke hilabete baten buruan ea kontentu dauden gure produktuarekin galdetzeko eta ea arazorik izan duten, baita ere galdetuko genieke ea hobekuntzarik ikusi duten eta horrela bada, beraiekin bilduko ginaten eta hobekuntza horiek azalduko zizkiguten, eta gu hobekuntza horiek aurrera eramaten saiatuko ginaten.



Gure bezeroek arazorik izanez gero gure produktuarekin zerbait izorratu delako lehenengo 2 urtetan garantia bat izango zuten eta orduan guk geure teknikari bat bidaliko genieke gure bezeroei eta moldatzen saiatuko ginateke eta han bertan ezin bada moldatu geure tailerrera ekarri eta hemen moldatuko genuke. Batzuetan arazoaren arabera molda ezinak izaten dira eta kasu horretan aztertu egingo genuke nondik etorri den arazoa, eta arazoa gurea bada gure enpresan hori hobetu beharko genuke eta bezeroaren arazoa bada, bezeroari azalduko genioke zergatik sortu zaion arazo hori adibidez erabilera txarra izan duelako eta erakutsiko genioke nola erabili eta produktu berri bat emango genioke doainik bi urteko garantia duelako produktuak.



Gure enpresan bezero txartela bat sortuko dugu gure bezeroei eskaintzak egiteko, bezero txartela eginez gero gure produktuak merkeago erostea lortuko dute adibidez. Bezero txartela lehenengo hilabetean doainik izango da eta gero hilabetean diru jakin bat ordainduta jarraitu ahal izango dute gure bezero txartelarekin, baina hilabetean beste diru kantitate bat handiagoa ordainduko balukete produktuen garantia 2 urtekoa izan beharrean 5 urteko izatea lortuko lukete.



Hasiera batean gure bezero posibleengana janean ginateke produktua aurkeztera eta bere abantailak erranen genieke. Ondoren konbenzitu baditugu eta produktua erosten badute gure teknikariak jartzera joanen ziren eta behin instalatuta geratu dela dena gure teknikariek azalduko lieke nola jartzen den martxan, nola itzali eta garrantzitsuena zein den gure produktuaren erabilera egokia eta zein ez den bere erabilera egokia produktuak bizi iraupen luze bat izateko.

